

ALBISTEA EDO BERRIA

❖ Pertsonen hitzak, albisteetan.

PERTSONEN HITZAK, ALBISTEETAN

Albisteetan, albistearen gaiarekin loturiko pertsonen hitzak adieraz daitezke.

- Norbaitek esandakoa hitzez hitz adierazten denean, berak esanda bezala adierazten denean, kakotx (" ") artean idazten da.
- Hitzez hitzeko aipamenaren amaieran puntuazio markarik jarri behar bada, kakotxen ondoren jarri behar da.
- Hitzez hitzeko aipamenak zuzenean edo *dio, dionez, esan du, esan duenez...* aditz-formen bitartez txerta daitezke testuan.

Hona hemen hitzez hitzeko aipamenak txertatzeko hainbat modu:

- "Egungo ordenagailuek ez dute zentzurik munduko biztanleen hiru laurdenentzat". Hala dio Indiako Zientzia ministroak.
- "Egungo ordenagailuek ez dute zentzurik munduko biztanleen hiru laurdenentzat", esan du Indiako Zientzia ministroak.
- Indiako Zientzia ministroak dioenez, "egungo ordenagailuek ez dute zentzurik munduko biztanleen hiru laurdenentzat".
- "Egungo ordenagailuek —dio Indiako Zientzia ministroak— ez dute zentzurik munduko biztanleen hiru laurdenentzat".

- Adibidez:

1. Dusko Ivanovic, baskoniako entrenatzaileak esan du:

"Denboraldi oso ona egiten ari dira, intentso jokatzeko ari dira".

2. Magallán: "Futbolaz hitz egiteko denbora izango dugu".

❖ ZERGATIK?

- Albiste bat idazterakoan gertaeraren zergatia edo arrazoa ematen duen informazioa idatzi beharko duzu.

Adibidez:

Zergatik gertatu da?
Galdera horri erantzuteko modu asko dago.

GERTAERA

Saria eman diote.

ZERGATIA edo ARRAZOA

Baztertuen alde lan handia egin du.

Baztertuen alde lan handia egiteagatik saria eman diote.

❖ Zure txanda!

- Albisteen idazketarekin zerikusia duten hainbat gauza ikasi dituzu jadanik. Ikasitako guztiak praktikan jarri eta zure albistearen zirriborroa idatziko duzu.

[illegible]